



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



Kaixo, merkatari hori:

Gutun honen bitartez **maiatzaren 25etik 27ra** Ermuan euskararen alde egingo den egitasmo baten berri eman nahi dizugu: **“Ermuan bagara”** izenekoa. Ekimen honen bidez, euskaldunak eta ulertzen dutenak aktibatu eta euskara gehiago erabiltzeko urratsak eman nahi ditugu. Horretarako, herritar guztiengana eta herriko elkarte askotarako jo dugu, ekimenarekin bat egin dezaten, jardueraren bat antolatuz edo parte hartuz. Horrela, denon artean, elkarlanean, egun horietarako egitarau zabala eta erakargarria antolatuko da.

Ekimenarekin zeuek ere bat egin dezakezue, horretarako egun horietan, zuen establezimenduan **“ahobizi edo belarriprest”** figurak hartzea proposatzen dizuegu. Zer konpromiso ekartzen du horrek?

Ahobiziok ondoko konpromisoa hartzen dugu: Ulertzen duenari euskaraz egingo diogu, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez euskaraz egingo diegu.

Belarriprestak ondokoa esan nahi du: Zuk egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.



Ekimenak Ermuan oihartzun handia izatea espero dugu eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskal Herri osoan burutuko den Euskaraldirako aurre-prestaketa izango da.

Ekimenarekin bat egin nahi baduzu edo argibide gehiago nahi baduzu jarri zaitezte gurekin harremanetan eta zure establezimenduan jartzeko kartela emango dizugu.

Kaixo,merkatari hori:

Mediante la presente carta os queremos informar de la iniciativa conjunta que se va a poner en marcha en Ermua **del día 25 al 27 de mayo**, en la cual participarán muchos ciudadanos y colectivos de Ermua con el fin de que quienes sepan euskera se relacionarán en euskera con aquellas personas que lo entiendan, y cuando se dirijan a personas que no conocen, su primera palabra también sea en euskera. Junto a esto se ha elaborado un programa diverso y atractivo gracias a la colaboración desinteresada de muchos colectivos locales.

A esta iniciativa vosotros/as también os podéis sumar, tomando el rol de **“ahobizi”** o **“belarriprest”** durante esos días en vuestro establecimiento. Los compromisos que adoptan estas figuras son los siguientes:

Ahobizi: Hablaré en euskera con las personas que lo entienden, aunque ellas me contesten en castellano. Y al dirigirme a personas que no conozco, al menos mi primera palabra será siempre en euskera.

Belarriprest: Háblame en euskera, que yo te entiendo. Independientemente de que te conteste en euskera o en castellano, quiero que me hables en euskera.

Para participar en esta iniciativa apoyada por el Ayuntamiento de Ermua y realizada por los agentes locales de Ermua, únicamente te tienes que poner en contacto con nosotros para enviarte gratuitamente el cartel con la figura que adoptes o solucionarte todas las inquietudes que puedas tener.

Esperamos que esta iniciativa tenga gran repercusión en el uso del euskera en Ermua y nos sirva como calentamiento del Euskaraldia que se celebrará durante 11 días del 23 de noviembre al 3 de diciembre, en todo el territorio del euskera.

Ermuko Udala: 943 179 147, euskara@udalermua.net

Euskaltzaleen sarea: 943 179 350, ermukoeuskaltzaleensarea@gmail.com

Gurekin izango zarelakoan, eskerrik asko.

Eskerrik asko!

EUSKARALDIA

ERMUAN BAGARA

2018KO

MAIATZAREN 25ETIK 27RA

ETA

AZAROAREN 23TIK

ABENDUAREN 3RA

EUSKARAK
365
EGUN

ZER EGIN DEZAKEGU EUSKAL HIZTUNOK EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO?

Galderak hainbat erantzun ditu, baina, guk, hizkuntza ohiturak astindu eta ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa bat proposatzen dizuegu:

2018ko maiatzaren 25etik 27ra eta 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean egin dezagun euskaraz. elkarrekin arituta, gure egunerokoan eragin genezake.

NOLA EGINGO DUGU?

Ondoko bi roletako bat har dezagun maiatzean 3 egunez eta azaroan 11 egunez:



AHOBIZI

Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.

BELARRIPREST

Egidazu euskaraz, nik ulertzen d eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.



ZER DA HAMAIKAKOA?

Hamaika laguneko taldea da hamaikakoa, inoren ordezkari izan gabe, modu pertsonalean eta borondatez arituko direnak. Euskaraldia ekimenean ahobizi edo belarriprest izatea erabaki dute. Horretarako, gainera, beren inguruko kideei ekimenaren eta beren erabakiaren berri emango diete, eta euskara ulertzen duten hamaika lagun, senide, lankide/ikaskide edo ezagun parte hartzeko aktibatzen saiatuko dira.

ZER LORTU NAHI DUGU?

- Gure harremanetan hizkuntzarekin ditugun inertziak astintzea eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posible dela frogatzea.
- **Ermuan** euskara ulertzen duen jendea pentsatzen duguna baino gehiago dela jabeaztea eta euskara gehiagotan erabili dezakegula ikusaraztea.
- Hizkuntza ohiturak aldatzea norberaren hautua eta ariketa izan arren, bidea taldean eta batera, erosoago eta lagunduago egitea.
- Euskara erabiltzeko testuinguru eta egoera berriak, abegikorragoak eta babestuagoak sortzea.

NON EGINGO DUGU?

Bakoitzak bere inguruan, bere ohiko harreman sareetan egitea proposatzen dugu: familian, lagunartean, laguntza, eskolan, dendetan...

Horretarako, herriz herri antolatuko gara, baita enpresa, ikasketa zentro eta era guztietako elkarte zein entitateka ere. Nahi duzun lekuan izena eman, eta ondoren, zure ingurukoekin parte hartu proposatzen dizugun ariketa honetan.

NORK HAR DEZAKE PARTE?

16 urtetik gorako herritarrek eman dezakegu izena.

- Ahobizi izateko, euskara hitz egiten jakin behar da.
- Belarriprest izateko euskara ulertu behar da.

Irizpideak betez gero, norberak erabakiko du zein roletan izena eman.

2018ko maiatzaren 25etik 27ra eta 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Ahobizi edo Belarriprest ikurra soinean eraman, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa egingo dugu!

ETA BITARTEAN, ZER EGIN DEZAKEGU?

Ermuko Euskaltzaleen sareak antolatutako batzordeetan zure ekarpena egin eta inguruan Ahobizi eta Belarriprest berriak aktibatzen denok egin dezakegu gure ekarpena.

HERRITARREN IZEN-EMATEA:

Ekimenean parte hartu nahi baduzu jarri gurekin harremanetan eta behar dituzun argibideak emango dizkizugu:

Euskaltzaleen Sarea: ermukoeuskaltzaleensarea@gmail.com, 943 179 350
Ermuko Udal Euskara Saila: euskara@udalermua.net, 943 179 147

ermuan bagara



EUSKARAZ HITZ EGITEN BADAKIZU?

**EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNIK EDUKI EZ
ARREN, ZERBAIT ULER DEZAKEZU?**

**KONTURATU AL ZARA, ORDUAN, ELKARREKIN
EUSKARAZ EGIN DEZAKEGULA?**

EGINGO AL DUGU PROBA?

